

KUDEAKETAKO BERDINTASUNERAKO JARDUNBIDE EGOKIAK JASOTZEKO GALDETEGIA

BERDINTASUNAREN KUDEKETA ARLOKO PRAKTIKAREN IZENBURUA:

SELFIE FEMINISTA LEHIAKETA (“Zaintzarekin negoziarik ez”)

BILATZEN DITUEN HELBURUAK:

- Kooperatiba barruan berdintasuneko ekintzak sustatzea.
- Aukera berdintasunaren inguruan dauden erronkei buruz hausnarketa sustatzea eta sentibilizatzea.
- 8M bakoitzean mugimendu feministaren urteko mezua lagundu eta zabaldu.

ENTITATE ARDURADUNA: Agintzari Soc. Coop.

EMAKUMEZKO LANGILEEN KOPURUA: 385 Guztiraren gaineko portzentajea: 77,46%

GIZONEZKO LANGILEEN KOPURUA: 112 Guztiraren gaineko portzentajea: 22,54%

WEBGUNEAK: www.agintzari.com

HASIERA DATA: 2024-03-08

HARREMANETARAKO PERTSONA: BERDINTASUN BATZORDEA-NEKANE ELOSU

HARREMANETARAKO TELEFONOA: 697915051

EMAIL: berdintasuna@agintzari.eus/nekaneelosu@agintzari.eus

HITZ GAKOAK: Aukeratu hurrengoetatik praktikak harreman handien duen 3 kontzeptuak:

BERDINTASUNERAKO PLANA/NAZIOARTEKO EGUNAK/IKUSPEGI FEMINISTA

Estrategia	Komunikazio eta/edo publizitatea erabilera ez-sexista
Pertsonak	Gardentasuna
Aliantzak	Nazioarteko egunak: kanpaina 22F, 8M, 17M, 28E, 25A
Hornitzaileak	Formazioa eta Sentsibilizazioa
Gizarte Erantzukizun Korporatiboa	Mentoretza
Erakunde Eredua	Barne Promozioa ez sexista
Zeharkakoa	Emakumeak sartzea ordezkartza txikia duten eremuetan
Kualitatibo eta kuantitatiboa	Batez ere gizonen edo emakumeen sektorea
Kudeaketa Sistematikoa, metodologia edo prozesua	Emakumeen partehartzea
Diagnostikoa	Amatasuna eta aitatasuna
Berdintasunerako plana	Kontziliazio erantzukidea
Ikerketak eta genero analisiak	Denboraren eta espazioaren antolamendua
Estrategian Integrazio	Zaintzak eta bizitzaren iraunkortasuna
Feminizidioa	Segurtasuna, Osasuna eta Ongizatea
Genero-indarkeria	Bezeroentzako/erabiltzaileentzako arreta
Arriskuen prebentzioa	
Komunikazio eraginkorra/komunikazio ez bortitza	
Barne komunikazioa	
Kanpoko Komunikazio	

Sexu-jazarpenaren eta sexuan oinarritutako protokoloa
Lan baldintzak
Ordainsari- politika
Sailkapen profesionala
Kristalezko sabaia
Parekidetasuna
Berdintasunerako lidergoa
Interseksionalitatea, Aniztasuna
Genero-ikuspegia edo/eta feminista
Emakume erreferenteen ikusaraztea
Autodefentsa feminista
Emakumeen ahalduntzea
LGTBIQ+ politikak
Berdintasunarekin konprometitutako maskulinitateak
Emakume migratzaileak eta migratuak
Gizarte Esku-hartzea

ERAKUNDEAREN SEKTOREA:

Hezkuntza
Industria

	Zerbitzuak
	Bestelakoak
	Osasun arloa
X	Zerbitzu publikoa / Herri administrazioa
X	Gizarte zerbitzuak

DESKRIBAPENA:

Martxoaren 8 bakoitzean, Agintzariko Berdintasun Batzordeak selfie-lehiaketa bat egiten du eta bertan talde edo zerbitzu bakoitzak mezu berdinkidea duen selfie argazki bat bidali beharko du. Aurten, azken bi urteetan bezala, mezua mugimendu feministaren urteroko leloarekin lotuta egotea eskatzen da, 2024ko leloa “Zaintzaren negozioari ez” izan zen. Argazkiak bildu ondoren, parte hartu duten talde eta zerbitzuentzako hausnarketa jardunaldia egiten da non parte hartzea eta argazki irabazlea saritzen diren.

ALDERDI BERRITZAILEAK: elementu ludiko bat erabiltzea mezu feministak sustatzeko eta lantzeko; adibidez, selfie argazki bat.

EMAITZAK (inpaktu positiboak edo ondorio negatiboen murrizketa):

Urteroko hausnarketak, aukera berdintasunarekin lotutako alderdiei buruz sentsibilizatzen laguntzen du.

KUDEAKETAN INTEGRATUA:

Selfie lehiaketak 7 urte daramatza gure kooperatiban. Hasiera batean, Genero Ikuspegiaren Taldea izan zen urtero gure entitatearen balore feministak sustatu nahi zituen argazki lehiaketaren arduraduna, gaur egun, Berdintasuneko Batzordeak egiten duen selfie lehiaketara heldu dena. Genero ikuspegiko taldea txertatu zen.

Selfie lehiaketa, azaroaren 25a bezalako beste data zehatz batzuetako sentsibilizazio ekintzekin batera, gaur egun lan egiten ari garen V. Berdintasun Planaren Antolamendu Egituraren neurrien barruan dago. Planaren jarraipenean ebaluatzen da.

Kooperatiba osoak ezagutzen duen ekintza da, urtero martxoaren 8a baino lehen iragartzen da zerbitzu eta ekipamendu guztiak prestatu eta bidaltzeko denbora izan dezaten. Lehiaketako oinarriak oso sinpleak dira (Martxoaren 8ko mugimendu feministaren leloa kontuan hartzea, interseksionalitatea sustatzea eta diseinu grafikoa sartzeko aukera) kooperatibaren atarian aurkitu daitezke. Parte hartzen duten argazkiak ere ikusi ahal izango dira atarian, bozkatzeko, baina ez dago kanpoko erakusketarik sari-banaketa egunean izan ezik, partaideek eskatu bezala, argazkiak ez dira kooperatibako bulego zentraletan jarri eta horrela, datu babesari ere erantzun ematen zaio.

Ekintza zehatza da, martxoaren 8rako, gutxi gorabehera hilabeteko epean amaitzen da.

ERAGINKORRA:

Erabilitako baliabideak hauek dira: zerbitzuetako mugikorrek eta ordenagailuak, inprimatutako eta markatutako argazkiak, parte-hartzaile bakoitzari emandako agendak eta talde irabazlearentzat sari bat, hau da, liburu feminista multzo batek (ipuinak, saiakera, gidak,...).) lanean aplikatu daitezkeen eta sentsibilizazioa sustatzen duten edukiekin. Liburuak

Barakaldoko “Libreramente” liburu-denda feministan erosten dira, gure balioekin bat datorren kontsumoa sustatzeko helburuarekin. Sari banaketa egunean lehiaketaren parte hartzea nolakoa izan den azaltzen da, urteko leloaren zenbait eduki nabarmentzen dira, aurten zaintzaz, erantzunkidetasunaz, kontziliazioaz,... hitz egin zen. Eta baliabide gisa, selfiaren inguruko esperientziaz eta parte-hartzaileek helarazi nahi izan duten beste gai batzuez hitz egiteko aukera eman zuen bazkaria lasai egin zen.

PARTE HARTZEA ETA PRAKTIKAREN IRISMENA:

Urtez urte parte hartzea gero eta handiagoa da, talde eta zerbitzu gehiagok hausnartu eta aukera berdintasunarekin lotutako mezuak bidaltzen dituzte. Aurten 11 talde/zerbitzuek bidali dituzte argazkiak, guztira 98 emakume eta 17 gizon.

Haren garapenean parte hartu duten pertsonak Berdintasun Batzordeko kideak dira, 15 emakume.

Urteroko selfie lehiaketa mantentzea aurreikusten da.

DOKUMENTATUA:

Praktika, 2024ko mugimendu feministaren leloan oinarritu da. Martxoaren 8 honetan “Zaintzaren negozioari ez” izan zen leloa, azaroaren 30ean zaintza sistema publikoa eskatzen zuen grebaren harira. Euskal Herriko Mugimendu Feminista web guneetan kontsultatzen dugu.

2024ko Martxoaren 8a



GURE BIZITZEKIN NEGOZIORIK EZ! ¡HACEOS CARGO YA!

Gasteiz: 18:00etan San Antonetik
Bilbo: 19:00etan Jesusen Bihotzetik
Donosti: 18:30ean Antiguoko Tuneletik
Iruñea: 19:00etan Antoniuñetik
Baiona: 18:00etan Herriko etxeko plazatik

EUSKAL HERRIKO MUGIMENDU FEMINISTA

ARRAKASTA-FAKTOREAK:

Ekintza hau, kooperatiba osoak lagundutako ekintza da, taldeetatik edo zerbitzuetatik hasita, zuzendaritzaraino. Ekintza honetarako erabilitako aurrekontua, Berdintasun Batzordeari urtero gordetako aurrekontuaren barruan dago. Esan bezala, parte hartzea ona da, nahiz eta oraindik hobetu daitekeela uste dugun.

Taldeek helarazten dizkiguten zailtasunak, antolakuntzakoak dira: pertsona guztiek argazkian agertu nahi dute baina ez dute beti bat egiten ordutegietan edo telelana dela eta, eguneroko lanak zeharkako ekintzak atzeratzea dakar, zuzenekoa ez den esku-hartze sozialari lotutakoak, adibidez eta batzuetan taldeko pertsona batek bakarrik dinamizatzen du,...

TRANSFERIGARRITASUNA:

Burutzeko erraza den praktika bat da, entitate bakoitzak parte-hartzearen bidez berdintasunaren inplikazioa eta kontzientzia probatzeko aukera ematen du, martxoaren 8an mugimendu feministarekin konektatzen da, inplikazioa aitortzeko aukera ematen du eta sensibilizazio ekintza bat da, formula lasaia, sortzailea eta dibertigarria erabiliz. Taldeka edo bakarka egitea gomenda liteke.

IKASKUNTZA:

Gure gomendioa guk egin dugun bezala egitea litzateke.

PRAKTIKA AKREDITATZEN DUEN MATERIALA:

Argazkiren bat edo argazki irabazlea bidaltzeko, parte hartzen duten taldeekin kontsultatu behar dugu. Esan bezala, zenbait taldek argazkiak kooperatibaren bulego zentratean ez erakusteko eskatu zuten, eta horregatik ez jartzea erabaki genuen.